
BERANGOKO HAUR LIBURUTEGIAREN ZERBITZUAREN ARAUDIA

ZERBITZUAREN DEFINIZIOA, ERABILERA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUAK

1.- HAUR LIBURUTEGIAREN ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

Haur liburutegiaren zerbitzua gune bat bezala ulertzen da, liburuaren eta irakurketaren inguruan, pertsonaren prestakuntza osoaren barruan.

Esperimentatzeko gune bat, jakin-mina izateko, ikasteko, irudimena eta trebetasun psikosozialak garatzeko gune bat, baina, batez ere, taldean disfrutatzeko gune bat, familiarekin, norberaren gisako taldearekin eta bakarrik.

2.- LIBURUZAINAREN FIGURA

- 2.1. Liburutegiko arduradunak edo, honen ezean, bere ordekoak, aginte eskuduna izango du zerbitzuan, eta zerbitzua erabiltzen dutenek errespetatu egin beharko dute bere figura.
- 2.2. Arau hauek betetzen ez duena kanpora botatzeko edo txartela kentzeko ahalmena izango du.
- 2.3. Ez du erantzukizunik onartuko, gauza pertsonalak galdu edo hondatzen badira.
- 2.4. Zerbitzuko arduradunak egoki iritziz gero, beste jarduera batzuetarako erabili ahal zango da.

3.- ERABILTZAILEEN DEFINIZIOA:

Liburutegian hazten:

- 3.1. Lehenengoko esperientzia: liburuaren agerpena eta liburutegia.
 - 0 – 2 urte bitarteko umeei zuzenduta.
 - Familiaz lagunduta egon behar dira.
 - Zerbitzuko langilea ordutegi osoan egongo da bertan, familiei laguntza eta aholkuak emateko prest.
- 3.2. Aurre-irakurleak: hizkiekin eta irudimenarekin jolasean
 - 3 – 5 urte bitarteko umeei zuzenduta.
 - Familiaz lagunduta egon behar dira.
 - Zerbitzuko langilea ordutegi osoan egongo da bertan, familiei laguntza eta aholkuak emateko prest.
- 3.3. Nire lehenengo irakurketak: irakurtzearen abentura.
 - 6-7 urte bitarteko umeei zuzenduta.
 - Ume bakoitzak irakurtzeko duen autonomia oso ezberdina da. Horregatik, gure ustez, familiarekin batera erabiltzeko gunea izan daiteke liburutegia.
- 3.4. Irakurleak: nire liburutegia, nire liburua.
 - 8 urtetik aurrerako umeei zuzendua. Bakarrik egon daitezke haur liburutegian.

4.- SARBIDEA:

4.1. Haur liburutegiaren ohiko zerbitzu **doakoa** da. Ekintza berezietan, kostua eta ezaugarriak zehaztuko dira, eta udalak horren gaineko informazioa zabalduko du.

4.2. Liburutegira sartzeko, **liburutegiko txartela** azaldu behar da.

4.3 Umeei laguntzea:

- Lehenengo esperientzia: gurasoek eta/edo tutoreek animatu eta lagundu behar dute dinamiketan, irakurketaz goza dezaten.
- Aurre-irakurleak: gurasoek eta/edo tutoreek animatu eta lagundu behar dute dinamiketan, irakurketaz goza dezaten.
- Nire lehenengo irakurketak: umea bakarrik badator, heldu batekin etor dadila eska diezaielke liburuzainak gurasoei, umearen trebetasunak, beharrak edo/eta jarrera ikusi ondoren.
- Irakurleak: bakarrik edo lagunduta sar daitezke haur liburutegian.

4.4. Gehienez, **48 laguneko edukiera** ezartzen da.

4.5. **Sartzeko murrizketak:**

- Edukieraren mugagatik:

- Edukiera bete eta gero, txandaka antolatuko da sartzea.
- Ume eta/edo familia bakoitzak gehienez ordubetez egon ahal izango da.
- Itxaron zerrenda bat egingo da, eta zerrenda horretan dauden erabiltzaileak sartuko dira liburutegira, iriste-hurrenkerari zehatz-mehatz jarraituz, Kultur Etxeko instalazioetan itxaroten badaude.
- Bedel zerbitzuko arduratuko da haur liburutegiaren erabiltzaileei abisatzeaz, euren txanda heltzen denean.

- **Programazioaren arabeko ordutegiak** jarriko dira, jarduerak ez oztopatzeko eta gainontzeko erabiltzaileei eragozpenik ez sortzeko:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
17:30	Haur liburutegiko zerbitzuak				Sarrera LIBREA
17:45					
18:00	-----				
18:15	Umeak sartzeko edo batzeko tartea				
18:30	EKINTZEN PROGRAMA – Ekintza gidatua				Sarrera ITXITA
18:45					
19:00	-----				
19:15	Umeak sartzeko edo batzeko tartea				
19:30	Haur liburutegiaren zerbitzuak				Sarrera LIBREA
19:45					
20:00					

- Ordu-tegi antolamendu hau aldatu ahal izango dute Berangoko udaleko edo Kultur Etxeko arduradunek, haur liburutegiaren funtzionamendu onaren mesedetan.
- Berangoeta Kultur Etxeko informazio paneletan emango da aldaketen berri.

5.- IRAKURLEAREN KARNETA:

5.1. Liburutegia eta mailegu zerbitzua erabili ahal izateko, beharrezkoa da irakurle txartela izatea. Nagusien liburutegian zein haur liburutegian eskatu ahal izango da txartel hori.

5.2. Txartela doakoa da eta besterenezina, eta bere titularra arduratuko da txartelaren erabileraz. Adin txikikoen kasuan, gurasoak edo tutore legalak izango dira arduradunak.

5.3. Txartela galtzen bada, berehala jakinarazi beharko zaio liburutegiari, baliogabetzeko.

5.4. Izaera pertsonaleko datuak babesteko 15/1999 lege organikoan xedatutakoa betez, Berangoko haur liburutegiak honako hau jakinarazten du: erabiltzaileei txartela emateko prozesuan jaso diren datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean tratatuko dira. Bestalde, liburutegi publikoen sarea dauden liburutegietako funtsen eta zerbitzuen erabilera kudeatzeko helburuarekin batzen eta tratatzen dira datu horiek.

6.- ORDUTEGIAK:

6.1. Zerbitzuaren ohiko ordutegia honako hau da:

Astelehenetik ostiralera 17:30etatik 20:00etara.

Urteko egutegian ezarri diren jaiegunak eta/edo zubiak izan ezik.

6.2. Haur liburutegiaren zerbitzuen ohiko dinamika antolatzeko, tartetean banatu da ordutegia.

6.3. Ordutegia oporretan:

- Haur liburutegiaren jardueren eta ordutegien dinamika aldatu egingo da oporren garaian. Gabonetan, Aste Santuan eta udan, kasu bakoitzean antolatuko den programa bereziaren barruan sartuko da.

7.- HAUR LIBURUTEGIAK ESKAINTZEN DITUEN ZERBITZUAK:

7.1. Mailegu zerbitzua.

- Irakurle bakoitzak 2 liburu eta DVD 1 hartu ahal izango da, gehienez ere 15 egunetarako.
- Mailegua egin ahal izateko, ezinbestekoa da liburutegiaren txartela aurkeztea.
- Behin baino ezin izango da luzatu liburuen mailegua, 15 egun baino gehiagorako, maileguaren epea amaitu baino lehen eskatu beharko da luzapena, eta beste irakurle batek liburu bera eskatu ez badu. Mailegua luzatzeko liburutegira bertara etorri beharko da.
- Maileguan eman diren liburuak epez kanpo itzultzen badira, zigor bat ipiniko da, eta maileguan hartzeko eskubidea kendu egingo da. Kasu honetan, erabiltzailea, maileguan hartzeko eskubiderik gabe geratuko da, material bakoitza epez kanpo itzuli arte igaro den denbora berberaz.
- Udalak ezarriko du isuna, egindako arau-haustearen larritasunaren eta motaren arabera. Kasu bakoitzean jarriko den zigorra aldatzeko eskubidea gordetzen du Udalak.

7.2. Kontsultatzeko gunea.

Kontsultatzeko gunea bat eskaintzen du haur liburutegiak. Etxerako lanak egiteko leku bat eta horien gaineko zalantzak argitzeko tresnak izango ditu umeak bertan.

- Kontrolatu egiten da interneten erabilera, programaren arduradunak murriztu egiten du.
- Txanda eskatu beharko da ordenadorea eta Interneteko konexioa erabiltzeko, eta zerbitzuaren arduradunari eman behar zaio izena.

-
- Internet erabiltzeko arau guztiak bete beharko dira, segurtasunari buruzkoak eta Interneten egokiak ez diren orrietan sartzeko debekuari buruzkoak. Ordenadore guztiak programatu eta aldatu dira, adin txikikoen segurtasuna babesteko.
 - Gehienez ere 30 minutuko denbora izango du egunero umeak kontsultatzeko. Beste batek eskatu ez badu, zerbitzuaren erabilera luzatu ahal izango da, arduradunaren irizpidearen arabera.
 - Internet eta multimedia euskarriak erabiltzeko zerbitzua ezin izango da telefonoz erreserbatu, ezta posta elektronikoz ere. Pertsonalki eskatu beharko da.
 - Halaber, ezin izango da CD ROM eta USB unitatea erabili, liburutegikoa ez den kanpoko materiala ekartzen bada, birusak ez hedatzeko.
 - Orriak inprimatu nahi dira, fotokopiak egiteko ezarrita dagoena ordaindu beharko da, eta zerbitzuko arduradunaren baimenarekin egingo da.

7.3. Jarduera programa:

Eguneroko programa :

- Egunero, 18:30etatik 19:00etara, jarduera berezi bat egingo da umeekin.
- Jarduera egiten den bitartean, umeek eta familiakoek ezin izango dute gune horretatik ez sartu ez irten, jokoaren eta irakurketaren erritmoa ez apurtzeko.
- Jarduera garatzen den bitartean eten egingo da liburuak maileguan hartzeko eta itzultzeko zerbitzua.
- Gurasoak ezin izango dute sartu eta kanpoan geratuko dira itxaroten, jarduerak umeei zuzenduta egingo baitira.

Programa berezia:

- Eskoletako oporretan eta data edo ekitaldi berezietan, haur liburutegiak jarduera bereziak antolatuko ditu, irakurzaletasuna bultzatzeko helburuarekin. Galdetu.

7.4. Guraso ipuin-kontalariak: familiaren parte-hartzea.

Gurasoak edo edozein heldu interesaturik egonez gero, ipuin kontalaria izateko aukera izango du, edo/eta zerbitzuko ume guztien aisialdirako eta gozamenerako jarduera bat egiteko.

- Hilero jarduera bat egingo da.
- Ama/aitarekin adostuko da data, eta libre daudenean egingo da, ostiraletan egitea lehenetsiz.
- Jarduera hau egiteko interesa dutenek liburutegiko arduradunarekin jarri beharko dira harremanetan.
- Gurasoek erabakiko dute zein hizkuntzatan egingo den jarduera, euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez.
- Hileko programan zehaztuko da zeintzuk diren jardueraren ezaugarriak eta nori zuzenduta egingo den.

7.5. Irakurketari buruzko aholkuak emateko zerbitzua:

Haur liburutegian aholkularitza eta informazioa emateko zerbitzua dago, guraso eta tutoreei zuzenduta, haurren irakurketa sustatzeko eta garatzeko teknikak eta bideak erakusten dira bertan.

- Ostiralero, 19:00etatik 20:00etara.
- Aldez aurretik eman beharko da izena.

-
- Badago aukera zita hau posta elektronikoz edo telefonoz eskatzeko. Horrez gain, aholkuak eskatzeko edo zalantzak argitzeko, posta elektronikoa erabil daiteke, mezua honako helbide honetara bidaliz: haurliburutegiab@hotmail.com

8.- JARDUERAK HEDATZEA.

- 8.1. Haur liburutegian egingo den hileko programazioaren eta jarduera berezien hedapena kartelen bitartez egingo da. Kultur Etxe bietan ipiniko dira kartelok. Bestalde, argibide-panfletoetan argitaratuko da informazioa eta posta elektronikoz zabalduko da.
- 8.2. Aste bakoitzeko eta hurrengo asteko programazio zehatza astero ipiniko da informazio paneletan, Kultur Etxeko 1. solairuan. Labur azalduko dira garatuko diren jarduerak eta zein adin tarteari zuzenduta egingo diren.

9.- ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK - ISUNAK:

9.1. Erabiltzaileak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

- Berangoko Kultur Etxeko arau orokorrak betetzea, izan ere, zerbitzu guztietan aplikatzen dira arauak, haur liburutegiarena barne.
- Liburutegiko instalazioen, ekipamenduen, funts bibliografikoen eta gainerako materialaren osotasuna eta egoera errespetatzea.
- Liburuak garbi, markarik edo apurketarik gabe mantentzea.
- Liburutegiaren sarrerari eta zerbitzuen erabilerari buruzko arau guztiak betetzea.
- Ozenki ez hitz egitea, korrikan ez ibiltzea eta eragozpenik ez sortzea.
- Telefono mugikorrek ez erabiltzea.
- Ez jatea, edatea edo erretzea, lanerako gunea baita.
- Zuzenean hartzen diren funtsak leku berean uztea. Erabiltzaileak arazorik izanez gero, liburutegiko langileei eman beharko dizkie.
- Kontuz erabiltzea dokumentuak, liburuak eta ikus-entzunezko materialak eta kalte egin diezaieketen elementuak ez erabiltzea aldi berean.
- Jabetza intelektualaren eskubideak ez haustea. Material bibliografikoa eta ikus-entzunezkoa norberaren erabilerarako da, eta debekatuta dago kopia egitea edo jendaurrean erakustea.
- Ikus-entzunezko aparatuei eta aparatu informatikoei aurreikusitako erabilera emango zaie.
- Norberaren gauzak zaintzea, liburutegiak ez du erantzukizunik izango lapurtzen edo galtzen badira.
- Maileguan hartutako materiala galdu edo hondatzen badira, erabiltzailea izango da erantzulea.
- Haur liburutegian haur orgatxoak ez sartzea, eta ez uztea sarrerako pasilloan.

9.2. Erabiltzaileari zigorra ezarriko zaio honako kasu hauetan:

- Zuzena ez den erabileragatik, nahita egindako kalteak erabiltzaileak konpondu beharko ditu (materiala hartu, orriak apurtu, liburuak azpimarratu eta, oro har, material bibliografikoen osotasunean edo zaintzan egindako errespetu falta guztiak). Liburutegitik eta liburutegiaren zerbitzuetatik kanpora botatzeko arrazoia izan daiteke ere, organo

eskudunak zehazten duenaren arabera, eta liburutegiko arduradunaren txostenean oinarrituta.

10. BESTELAKOAK:

10.1. Kultur Etxeko langileek ez dute botikarik emango eta ez da salbuespenik egingo.

10.2. Berangoko udalak eta Kultur Etxeak ordutegiak eta jarduerak aldatzeko eskubidea dute, denon onerako eta gainerako udal jardueren funtzionamendu egokirako bada.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi honetako agindu guztien kontra egiten duten edo kontrakoa esaten duten xedapen guztiak indargabetu egiten dira.

Araudi honetan aurreikusita ez dagoenaren kasuan, tokiko erregimena arautzen duten arau orokorretan xedatutakoa beteko da.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu eta hamabost egun igarota jarriko da indarrean.